



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

2010EKO MARTXOAREN 11KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzordearen irizpena, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzeari buruzko lege-proposamenaren gainean egindakoa. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [09\09\02\02\0005]

Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzeko martxoaren 11ko 1/2010 Legea onetsi da.

1/2010 LEGEA, MARTXOAREN 11KOA,
EUSKAL HERRIKO NATURA BABESTEKO
EKAINAREN 30EKO 16/1994 LEGEA
ALDATZEKOA

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun hain erabilia den garapen iraunkorraren kontzeptuak berekin ekarri du bestelako politikak ezartzeko garaian ingurumenaren aldagaia kontuan ezinbestean hartu beharra.

Hori dela eta, natur ondarearen erabileraren ikuspegitik, honakoak dira inspirazio-oinarri nagusiak: ingurumenaren babesa gailentzea lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduari; naturguneetan edo/eta basoko espezieengan eragina izan dezaketen esku hartzeetan arretaz jokatzeko; babestutako naturguneei lotutako garapenaren iraunkortasuna hobetzeko prozesuak sustatzea; baliabideen erabilera ordenatua sustatzea, natur ondarearen aprobetxamendu iraunkorra bermatzeko; eta natur ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko, era iraunkorrean erabiltzeko, hobetzeko eta leheneratzeko eskakizunak barne hartzea arloko politiketan.

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL 11 DE MARZO DE 2010

1. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, en relación con la proposición de ley sobre modificación de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. [09\09\02\02\0005]

Se aprueba la Ley 1/2010, de 11 de marzo, de modificación de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

LEY 1/2010, DE 11 DE MARZO, DE
MODIFICACIÓN DE LA LEY 16/1994, DE 30
DE JUNIO, DE CONSERVACIÓN DE LA
NATURALEZA DEL PAÍS VASCO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En la actualidad, el tan manido concepto de desarrollo sostenible viene a establecer la obligatoriedad de tomar en consideración la variable medioambiental a la hora de establecer otra serie de políticas.

De esta manera, desde la perspectiva de la utilización del patrimonio natural, los principios inspiradores se centran en la prevalencia de la protección ambiental sobre la ordenación territorial y urbanística, en la incorporación del principio de precaución en las intervenciones que puedan afectar a espacios naturales y/o especies silvestres, en contribuir a impulsar procesos de mejora en la sostenibilidad del desarrollo asociados a espacios naturales protegidos, en la promoción de la utilización ordenada de los recursos para garantizar el aprovechamiento sostenible del patrimonio natural y en la integración de los requerimientos de la conservación, uso sostenible, mejora y restauración del patrimonio natural y la biodiversidad en las políticas sectoriales.





Jarraibide horiek abenduaren 13ko 42/2007 Legearen, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoaren, bidez hartu dira barne Estatuko legeriaren baitan. Haatik, ohiko jardunean ugaria da jarraibide horien inguruko adostasunik eza, EAEko lurralde-plangintza egiteko garaian.

Horien adibide dugu gure Erkidegoan dauden harrobiak ustiatzeko politikak aztertzerakoan aurki dezakegun egoera. Izan ere, harrobien lurraldearen arloko plana (hori bere garaian lurralde antolamenduko gidalerroetan jasota geratu zen, 1997an, baina oraindik ez da idatzi) egin aurretik Eusko Jaurlaritzak eskatutako txostenean, gisa horretako ustiapenak kokatzeko hainbat proposamen posible bildu ziren. Horiek aztertuta ondoriozta daitekeenez, agiri horren arabera harrobiek izan ditzaketen 131 kokalekuen artetik hamarka dira babestutako naturguneekin bat datozenak, eta horietan zuzenean erasango litzateke.

Honakoak lirateke eragin horiek:

- 11 parke naturaletan.
- 9 babestutako biotopoetan.
- 9 Urdaibaiko Biosfera Erreserban.

Aipatzekoa da agiriak berak proposatzen dituela kareharrizko agregakinak erazteko erreserbatutako gune nagusi gisa Urkiolako Parke Naturaleko (5) eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako (9) kareharrizko eremuak, baina jarduera horrek eragin handiak izango lituzke gune horietan.

Horrezaz gain, aipatutako lehen naturgune horretan, hots, Urkiolan, sakontzea merezi du, egoera berezia baita gaur egun aktibo dagoen harrobietako batean, parkearen beraren mugen barruan dagoen harrobian, hain zuzen ere, Zalloventa harrobian.

Harrobi hori 1995az geroztik ari dira ustiatzen, nahiz eta administrazio-baimen guztiak baliogabetzat jo diren; azkenekoa EAEko Auzitegi Nagusiaren 2007ko uztailako epaiak jo zuen baliogabetzat.

Are gehiago esan genezake: Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzaileak berak (EKPZ) dioenez, harrobiak baimena du 1.500.000 Tn inguru ustiatzeko parke naturalaren mugen baitan,

Estas directrices, que han sido incorporadas al ordenamiento jurídico estatal por medio de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, siguen encontrando grandes incongruencias en la práctica habitual a la hora de realizar la planificación territorial en la CAPV.

Un ejemplo de ello es la situación que nos encontramos a la hora de analizar la política de implantación de las explotaciones de canteras que existen en nuestra Comunidad. Así, en el estudio preliminar encargado por el Gobierno Vasco previo a la realización de un plan territorial sectorial de canteras (recogido en su día por las propias directrices de ordenación territorial en el año 1997 y aún sin redactar) se recoge una serie de posibles propuestas de ubicación de explotaciones de estas características, de cuyo análisis podemos extraer que, de las 131 posibles ubicaciones para canteras propuestas en dicho documento, decenas de ellas coinciden con espacios naturales protegidos en los que se producirían afecciones directas.

Dichas afecciones se distribuyen de la forma siguiente:

- 11 en parques naturales.
- 9 en biotopos protegidos.
- 9 en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

Cabe destacar que el propio documento propone como principales puntos de reserva de áridos calizos para su extracción las zonas calizas del Parque Natural de Urkiola (5) y la Reserva de la Biosfera de Urdaibai (9), lo que generaría importantes impactos sobre dichas zonas.

Además, en este primer espacio natural mencionado, Urkiola, merece la pena profundizar por la situación peculiar que se da en una de las canteras que a día de hoy se encuentra activa, dentro de los límites del propio parque, la cantera de Zalloventa.

Dicha cantera se está explotando desde el año 1995, a pesar de que todas las autorizaciones administrativas han sido declaradas nulas, la última por sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de julio del año 2007.

Más aún, nos encontramos con que el propio plan rector de uso y gestión (PRUG) autoriza a la cantera una explotación de aproximadamente 1.500.000 Tn dentro de los propios límites del





harrobi osoa leheneratzea bermatzeko aitzakiarekin.

EKPZ onartuz geroztik egiaztatu ahal izan da, Eusko Jaurlaritzako Meategien Zuzendaritzak berak baliozkotzat jotako proiektu tekniko baten bidez, harrobi osoa lehenera daitekeela ustiatzen jarraitzeko premiarik gabe eta, beraz, ingurumena erasaten jarraitu gabe, lehenaz gainera oso narriatuta baitago harrobia 30 urte baino gehiagotan etenik gabe ustiatzearen ondorioz.

Hori dela eta, eta Mañariko herritarren ekimena bere eginez, Bizkaiko Batzar Nagusietan, bertaritutako alderdi guztiek aho batez onartu zuten EKPZ aldatzeko eta parkearen mugen barruan zabaltzen jarraitzea saihesteko adierazpena.

Eusko Legebiltzarrak ere aldaketa hori babesteko lege besteko proposamena onartu zuen. Alabaina, oraindik ez da egin aldaketa hori.

Azaldu berri ditugun adibideen antzekoen argitara, zaila da sinestea hasieran adierazitako jarraibideen gisakoak –paisaien edertasuna, ekosistemen adierazgarritasuna edo floraren, faunaren edo dibertsitate geologikoaren eta formazio geomorfologikoen berezitasuna direla eta, ekologiarren, estetikaren, hezkuntzaren eta zientziaren aldetik begiratuta zaintzeko lehentasunezko arreta merezi duten naturguneak (horixe da parke naturalen definizio juridikoa) babesteko garaian legeriaren baitan nagusi izan behar luketenak– bateragarri direnik legeak naturguneen mugen baitan ahalbidetzen duenarekin, hau da, natur baliabideen erauzketa, bestela esan, harrobieen ustiaketa, ahalbidetzearekin. Izan ere, horiek eragin handia dute ingurunean, ez bakarrik paisaia nabarmen erasaten dutela kontuan hartuta, baizik eta berariazko produkzio-prozesuak ere (leherketa, hauts, zarata edo bibrazio izugarriak sortzea, ibilgailu astunen joan-etorri handia eta inguruko akuiferoen eta ibaien kutsadura) kontuan izanik.

Azaldutako hori guztia dela eta, ondorengo lege-aldaketa proposatzen dugu, horren bidez babes-klausula bat ezartzeko naturguneei, izan daitezkeen urratzeak edo interes ekonomikoak ingurumenaren gainekoei gailentzea saihesteko.

parque natural, con la excusa de garantizar una recuperación de la totalidad de la cantera.

Posteriormente a la aprobación del PRUG se ha demostrado con un proyecto técnico cuya validez es aceptada hasta por el propio Departamento de Minas del Gobierno Vasco que se puede recuperar integralmente esta cantera sin necesidad de explotación adicional y, por lo tanto, sin necesidad de una mayor afección al medio ambiente, ya de por sí muy deteriorado por los más de 30 años de explotación ininterrumpida de la cantera.

Es por ello que, recogiendo la iniciativa de los vecinos y vecinas del municipio de Mañaria, las Juntas Generales de Bizkaia aprobaron por unanimidad de los partidos asistentes una declaración para modificar el PRUG y evitar nuevas ampliaciones dentro de los límites del parque.

También el Parlamento Vasco aprobó una proposición no de ley para apoyar dicha modificación. A día de hoy, esa modificación no se ha producido.

Ejemplos como el expuesto hacen difícil creer que directrices como las al principio señaladas, que deben regir en el ordenamiento jurídico a la hora de proteger las áreas naturales que en razón de la belleza de sus paisajes, la representatividad de sus ecosistemas o la singularidad de su flora, de su fauna o de su diversidad geológica, incluidas sus formaciones geomorfológicas, poseen unos valores ecológicos, estéticos, educativos y científicos cuya conservación merece una atención preferente (definición jurídica de parque natural), sean compatibles con que la ley permita, dentro de los límites de las áreas naturales, explotaciones extractivas de recursos naturales como las canteras, con un alto impacto sobre el entorno, no sólo por las importantísimas afecciones en el paisaje sino también por las debidas a sus específicos procesos productivos como son las voladuras, generación de enormes cantidades de polvo, ruidos, vibraciones, gran tráfico de vehículos pesados, contaminación de acuíferos y de ríos del entorno.

Es por todo lo expuesto que proponemos la siguiente modificación normativa, para establecer mediante la misma una cláusula de protección de los espacios naturales que no permita posibles vulneraciones primando intereses económicos sobre los medioambientales.





Artikulu bakarra

Lehenengoa. 13. artikuluan d) idatz-zatia erantsiko zaio Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legeari. Hona hemen bere idazkera:

"d) Natura 2000 Europako Sarean sartutako eremu edo tokia (Europar Batasunaren intereseko lekuak –EBIL–, kontserbazio eremu bereziak –KEB– eta hegaztientzako babes bereziko eremuak –HBBE–), a), b) eta c) aurreko kategoriek in eremuz, osoki edo zatiz, batera suertatzen bada ere".

Bigarrena. 16 bis artikulua erantsiko zaio Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legeari. Hona hemen bere idazkera:

"16 bis artikulua

Natura 2000 Europar Sarean sartutako eremu edo tokiak dira 92/43/EEE edo Habitata eta 79/409/EEE edo Hegaztiena zuzentarauei eta beroriek Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legearen bitartez Espainiako legeei aldatzeari jarraiki izendatutakoak".

Hirugarrena. 17. artikuluan 4. paragrafoa erantsiko zaio Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legeari. Hona hemen bere idazkera:

"4. Babestutako naturguneen mugen eta eragin-eremuaren baitan ezingo da inolako meatze-ustiapenik egin, ez aire zabalean, ez lur azpian".

Xedapen iragankor bakarra

"Lege hau onartzeko datan babestutako naturguneen mugen eta eragin-eremuen barruan dauden meatze-ustiapenek ezingo dute beren ustiapena zabaldu naturgune horien baitan, ez proiektu berrien bidez, ez 17. artikuluan aldaketa indarrean sartzen den unean gauzatzen ari diren proiektuak aldatzearen bidez.

Une honetan indarrean dauden baimen eta proiektuen araberako ustiapen-jarduera amaitzen denean babestutako naturguneen mugen eta eragin-eremuen barruan, pertsona fisiko edo juridiko tituldunek indarrean dauden leheneratzeko proiektuak gauzatu beharko dituzte eta bertan dauden instalazio guztiak kendu beharko

Artículo único

Primero. Se añade un apartado d) en el artículo 13 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, con el siguiente tenor:

"d) Zona o lugar incluido en la Red Europea Natura 2000 (lugares de importancia comunitaria –LIC–, zonas especiales de conservación –ZEC– y zonas de especial protección para las aves –ZEPA–), sin perjuicio de coincidir espacialmente, de forma total o parcial, con las categorías anteriores a), b) y c)".

Segundo. Se añade un artículo 16 bis a la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, con el siguiente tenor:

"Artículo 16 bis

Son zonas o lugares incluidos en la Red Europea Natura 2000 los designados conforme a las directivas europeas 92/43/CEE o de Hábitats y 79/409/CEE o de Aves y a su trasposición a la legislación española por medio de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad".

Tercero. Se añade un apartado 4 en el artículo 17 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, con el siguiente tenor:

"4. Dentro de los límites y zonas de afección de los espacios naturales protegidos no podrá llevarse a cabo explotación minera alguna, ni a cielo abierto ni de forma subterránea".

Disposición transitoria única

"Las explotaciones mineras existentes a fecha de la aprobación de la presente ley dentro de los límites y zonas de afección de los espacios naturales protegidos no podrán ampliar su explotación dentro de dichos espacios ni a través de nuevos proyectos ni por modificación de los que se hallen en ejecución en el momento de entrada en vigor de la modificación del artículo 17.

Terminada la actividad de explotación dentro de los límites y zonas de afección de los espacios naturales protegidos conforme a los permisos y proyectos actualmente en vigor, las personas físicas o jurídicas titulares deberán ejecutar los proyectos de restauración en vigor y dismantelar todas las instalaciones existentes, tanto las relacionadas





dituzte, ustiapenarekin lotura zuzena dutenak nahiz onurakotzat jotzen direnak".

Azken xedapena

"Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean".

directamente con la explotación como las llamadas de beneficio".

Disposición final

"La presente ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco".

2. Mozioa, Antonio Damborenea Basterrechea Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, Eusko Jaurlaritzaren arrantza-politikari eta antxoaren arrantza berrirekitzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0031]

EA-NV, ES, ETP eta Aralar taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Bere arrantza-politikak ezinbesteko erreferentziatzat izan ditzala txosten zientifikoak.
2. Manten daitezela arrantzaren gaineko kontrolak, EAEko ikuskaritza-lanak Estatuaren ikuskaritza-lanekin koordinatuz, onetsitako arrantza-mugak bete daitezen.
3. Ikuskaritza- eta zaintza-neurri guztiak har daitezela Kantauri itsasoaz kanpoaldetik inportaturiko antxoaren gainean, baita gure arrantza-ontziek harrapaturiko antxoa merkatuetan bereiztearen gainean ere.
4. Har daitezela beharrezkoak diren zaintza-neurriak, Frantziatik datorren antxoak herrialde horri esleitu zaion kuota gainditu ez dezan".

2. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Antonio Damborenea Basterrechea, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a la política pesquera del Gobierno Vasco y la reapertura de la pesquería de la anchoa. [09\11\03\00\0031]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV, PV y Aralar.

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Que su política pesquera tenga como referencia ineludible los informes científicos.
2. Que se mantengan los controles sobre la pesca coordinando los trabajos de inspección de la CAV con los que cuenta el Estado, con el fin de que se cumplan los límites de pesca admitidos.
3. Que se adopten todas las medidas de vigilancia e inspección sobre la anchoa importada proveniente de fuera del Cantábrico, así como su diferenciación en los mercados respecto a la pescada por nuestra flota.
4. Que se adopten las medidas de vigilancia necesarias para que la anchoa proveniente de Francia no sea superior a la cuota adjudicada a dicho país".





3. Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, euskal sanitare publikoaren egoerari eta etorkizuneko orientazioei buruz azterketa bat egitearen gainean. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0185]

Ezetsi egin da.

3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a la elaboración de un estudio sobre la situación y las orientaciones de futuro de la sanidad pública vasca. [09\11\02\01\0185]

Rechazada.

4. Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, EAEko RTVEk euskarazko emanaldiak eskaintzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0207]

Ezetsi egin da.

4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, sobre emisiones en euskera de RTVE en Euskadi. [09\11\02\01\0207]

Rechazada.

5. Honako legez besteko proposamen hauek batera eztabaidatu eta behin betiko ebazpena hartzea:

Mistoa-Ezker Batua Berdeak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, pensio publikoen erreformari buruz. [09\11\02\01\0232]

Aralar legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, pensioak erreformatzeko proposamenari buruz. [09\11\02\01\0236]

EA-NV, ES, Aralar, Mistoa-EA eta Mistoa-EB taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

48/2010

"1. Euzko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio 65 urtetan utzi dezala derrigorrezko erretiroa hartzeko adina.

5. Debate conjunto y resolución definitiva de las proposiciones no de ley siguientes:

Proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Ezker Batua Berdeak, relativa a la reforma de las pensiones públicas. [09\11\02\01\0232]

Proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Aralar, sobre la propuesta de reforma de las pensiones. [09\11\02\01\0236]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV, Aralar, Mixto-EA y Mixto-EB.

48/2010

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a mantener la edad obligatoria de jubilación en los 65 años.





- | | |
|--|--|
| <p>2. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, Toledoko Itunaren esparruan, eta alderdi politiko eta eragile sozial eta ekonomikoen arteko adostasunarekin, berma dezala pentsio-sistema publikoaren kalitatea eta estaldura.</p> <p>3. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bete dezala Autonomia Estatutua eta transferitu dezala, lehenbailehen, Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketa".</p> | <p>2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a que en el marco del Pacto de Toledo, y con el consenso entre los partidos políticos y los agentes económicos y sociales, garantice la calidad y la cobertura del sistema público de pensiones.</p> <p>3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a que cumpla el Estatuto de Autonomía y a que transfiera, cuanto antes, la gestión del régimen económico de la Seguridad Social".</p> |
|--|--|

6. Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, euskal hauteskunde-sistemaren erreformari buruz. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0212]

Ezetsi egin da.

6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD, sobre la reforma del sistema electoral vasco. [09\11\02\01\0212]

Rechazada.

7. Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoan legez kanpoko Eusko Abertzale Ekintzak gobernatzen dituen udalak desegiteari buruz. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0198]

Ezetsi egin da.

7. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a la disolución de los ayuntamientos gobernados por la ilegal Acción Nacionalista Vasca en la Comunidad Autónoma vasca. [09\11\02\01\0198]

Rechazada.

